

BERTSOA UNIBERTSITATEAN



Gipuzkoako
Foru Aldundia

XXXIII Cursos de Verano Uda Ikastaroak XXVI Cursos Europeos Europar Ikastaroak



Junio-Septiembre
Ekaina-Iraila
2014



Universidad
del País Vasco Euzko Herria
Unibertsitatea

Organizadores y patrocinadores
Antolatzaileak eta habedunak

Universidad del País Vasco
Euzko Herria Unibertsitatea
Gobierno Vasco
Euzko Jaurlarria
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gipuzkoako Foru Aldundia
Ayuntamiento de San Sebastián
Donostiako Udaia

Colaborador
Laguntzailea

Fundación BBVA



Aurtengo Uda Ikastaroen edizio honetan bidelagun izango dugun kartela, gure eguneroko zereginetan erabiltzen ditugun objektu sinpleen —iragarki-tauletan erabiltzen ditugun txintxeten— analogiak bilatzetik konfiguratzan da formalki.

Objetu hauen bitartez gure Ikastaroak definitzen dituen funtsezko oinarri batekin erlazioa duen lurralde sinboliko eta adierazgarri baten murgiltzea nahi da: udan izaten den topaketa leku bat.

Horretarako, aipatutako objektuen berezko zentzua alde batera utzi eta esanahi berrietarantz abiatzen laguntzen duen joko bat proposatzen da. Beraz, txintxetak, gure lanean erakusten, seinalatzen, azpimarratzen, bereizten, gogoratzen... laguntzen duten elementuak, leku baten inguruko bilketan pertsonalizatu daitezke. Eta leku honetatik, bere forma-antzekotasunagatik eta koloreagatik, eguzkiaren analogia agertzen da, hau da, udako sinbolo enblematikoaren irudia.

Eguzkia, gure munduko bizi-jardueraren adierazpena, bere sistema guztiei argia eta energia ematen diena. Eguzkia, pertsona bakoitzaren ahalmen sortzaile, hazkunde eta berotasunaren adierazpen sinbolikoa. Eguzkia, udaren sinboloa.

Uda, aurkitzeko une aproposa.

El cartel que nos acompaña en esta edición de los Cursos de Verano/Uda Ikastaroak, se configura formalmente desde la búsqueda de analogías a partir de simples objetos de nuestro quehacer cotidiano: las chinchetas usadas en los tablores de anuncios.

Desde estos objetos se pretende entrar en territorios simbólicos y significativos relativos a uno de los fundamentos esenciales que define a nuestros Cursos: un lugar de encuentro en el verano.

Para ello, se propone el juego de desvincular el sentido literal de dichos objetos hacia nuevos significados. Así, las chinchetas, elementos que nos ayudan en nuestro trabajo a exponer, señalar, indicar, remarcar, diferenciar, recordar..., pueden personalizarse en reunión en torno a un lugar. Y desde este lugar, por su similitud de forma y color, surge la analogía con el sol, símbolo emblemático del verano.

El sol, manifestación de la actividad vital en nuestro mundo, que ilumina y da energía a todos sus sistemas. El sol, expresión simbólica de las capacidades creativas de cada persona, del crecimiento y del entusiasmo. El sol, símbolo del verano.

El verano, un buen momento para encontrarnos.

XXXIII. UDA IKASTAROAK
CURSOS DE VERANO

XXVI. EUROPAR IKASTAROAK
CURSOS EUROPEOS

BERTSOA UNIBERTSITATEAN

ekaina-iraila **2014** junio-septiembre

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

BERTSOA UNIBERTSITATEAN

Aspaldi du Bertsoak Unibertsitatearekin harremana. On Manuel Lekuonak ezarri zuen lehen harria 1930an, Eusko Ikasketen V. Bilzarreko euskal poesia herrikoiari buruzko ponentzia harekin. Geroztik ez du euri gutxi egin. Eta ez dira gutxi Euskal Herriko Unibertsitatearekin bezala bestelako Unibertsitateekin antolatutako ikastaro eta hitzaldiak. Azkenaldian bertsolaritzari buruzko etxeko zein atzerriko ikertzaileak eta ikerketak ugaltzen ari zaizkigu. Ahozkotasanari buruzko gradu-ondoa antolatzea dugu begiz jota, eta ailegatuko da hori ere.

Bitartean ez da makala EHUko uda ikastaroen baitan antolatu dugun bertsolaritzari buruzko "Bertsoa Unibertsitatean" eskola berri hau, bost urteko hitzarmenaren baitan, urtero berrituta eskainiko duguna. Horren arabera aurten ez ezik, datozen 4 urteotan bertsolaritzari eta ahozkotasanari buruzko 5 egunetako eskola prestatuko dugu EHUko uda ikastaroak eta Mintzolak auzolanean. Zikloa hitzaldi, mahai-inguru eta performancez osatuko da, eta uztailaren bigarren astean emango da, Miramar Jauregian. Eskolak bertsolaritza izango du ardatz, baina bertsolaritza ondoko baratzek ere hartuko ditu bere baitan. Batetik, ahozko literaturaren ekosistemako kideei egingo zaie leku: antzerkia, ipuina zein kantua. Bestetik, kantu inprobisatuaren ekosistemako beste kideei egingo zaie leku; oraingoan ez bada etorkizuneko edizioetan.

Aurtengo eskolak 3 ikastaro izango ditu bere baitan. Bertsolaritza eta beste hiru esparruren arteko harremanen berri emango da hiruretan:

1. Bertsolaritza eta ahozkotasuna Hezkuntza Arautuan.
2. Bertsolaritza eta beste sorbideak.
3. Bertsolaritza eta gaurko gizartea.

Lehendabiziko ikastaroan bertsolaritza hezkuntzan kokatu dugu. Komunikazioaren gizartean bizi gara egun. Ezinbestekoa da esan nahi dugun hori argi eta esan indarrez adieraztea gure helburu komunikatiboak lortuko baditugu. Egungo ahozko beharrei erantzuteko bertsolaritzak zein ahozko beste generoek eskaintzen dizkiguten baliabideei erreparatu diegu. Haiek ikertu eta aurkitutako gakoak hezkuntzaren bidez belaunaldi berriei transmititzen gabilta, gozatuz beti ere. Horien berri eman nahi genuke ikastaro honetan.

Ahozkoztatuetik eta adierazkortasuetik harago, hezkuntzaren baloreak transmititzeko tresna bada bertsolaritza. Hori ere erakutsi nahi genuke ikastaro honetan. Bertsolaritzaren bidez koka gaitzke munduan, munduko beste kantu inprobisatuen arabera. Bertsolaritzaren bidez norbanakoaren kontzientzia pitz genezake, emakume tasuna esaterako. Bertsolaritzaren bidez genero berdintasuna eragin genezake. Bizitzaren eskola kabitzen da zortziko txiki batean.

Bigarrenko ikastaroan sorkuntzari lotu gaitzaizkio. Bertso eskolek, eta bertsolaritzak oro har, bertsoa sortzeko moduak eta tresnak transmititzen dituzte. Bertsoa sortzeko teknikak eta gakoak, ordea, aplikagarri izan daitezke bestelako sorkuntzetan edo komunikazio ekintzetan, bere horretan edo egokituta. Eta alderantziz; beste diziplinetako sormen prozesuetako teknika eta gakoek balio dezakete bertsoak sortzeko prozesuan aplikatzeko, bere horretan edo egokituta.

Bi eskutako behatzak ez dira aski bertsolari izateaz gainera idazle, musikari, marrazkigile, kazetari, telebista aurkezle eta irrati esatariak direnak zenbatzeko. Horiei galdetu diegu zenbateraino lagundu dituen bere sorbidean bertsolaritzak. Edota balizko beste sorbide horrek zertan eta zenbateraino lagundu edo baldintzatu dituen bertsoen sorkuntzan.

Eskola itxiko duen hirugarren ikastaroak gizartea du oinarri. Bertsozaletasuna errotuta dago euskal gizartean. Halaxe erakusten dute 1994 eta 2005eko bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoek. Badira nabarmentzeko alderdi gehiago ordea. Horiek plazaratzen eta 2015ean egingo den bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoak zer erakutsi behar duen azalduko dugu. Bertsolaritza sormen eta plazer bide ez ezik, aldeko haize ere izan daiteke gizarteko hainbat alorretan: hizkuntzaren berreskuratze prozesuan, herrigintzan eta abar. Horren berri ematera gatzoz ikerketa zein gogoeta aski interesgarrien bidez.

Karlos Aizpurua Etxarte

AURKIBIDEA

J.1. Bertsolaritza eta ahozketasuna Hezkuntza Arautuan	7
J.2. Bertsolaritza eta beste sorbideak	11
J.3. Bertsolaritza eta gaurko gizartea	13
Informazio orokorra	15



Ikastaroa J.1

BERTSOLARITZA ETA AHOZKOTASUNA HEZKUNTZA ARAUTUAN

Zuzendaritza: **Karlos Aizpurua Etxarte**
Mintzola Fundazioa. Villabona.

Lekua: **Miramar Jauregia. Donostia / San Sebastián.**

Helburuak: Komunikazioaren gizartean bizi gara egun. Ezinbestekoa da esan nahi dugun hori argi eta esan indarrez adieraztea gure helburu komunikati-
boak lortuko baditugu. Egungo ahozko beharrei erantzuteko bertsolari-
tzak zein ahozko beste generoek eskaintzen dizkiguten baliabideei
erreferatu diegu. Haiak ikertu eta aurkitutako gakoak hezkuntzaren bidez
belaualdi berriei transmititzen gabiltza, gozatuz beti ere. Horien berri
eman nahi genuke ikastaro honetan.

Ahazkotasunetik haratago, hezkuntzaren baloreak transmititzeko tresna
bada bertsolaritza. Hori erakutsi nahi genuke ikastaro honetan. Ber-
tsolaritzaren bidez koka gaitezke munduan, munduko beste kantu inpro-
bisatuen arabera. Bertsolaritzaren bidez norbanakoaren kontzientzia pitz
genezake, emakume tasuna esaterako. Bertsolaritzaren bidez genero
berdintasuna eragin genezake. Bizitzaren eskola kabitzen da zortziko txiki
batean.

*J ziklo osorako matrikula eginez gero, matrikula berezia: maiatzaren 31ra
arte: 120 €. Ekainaren 1etik aurrera: 140 €.*



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departa-
mentua eta Mintzola ahozko lantegia-ren lankidetzaz**

Matrikula prezioa: maiatzaren 31ra arte: 80 €. Ekainaren 1etik aurrera: 92 €

Balio akademikoa: 30 ordu

Hizkuntza ofiziala: euskara



EGITARAUA

UZTAILAK

7

- 09:00ean Dokumentazio banaketa
- 09:15ean "Bertsolaritzaren Transmisio antolatua"
Erika Lagoma Pombar
Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. Villabona.
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Nola landu bertsolaritza Hezkuntza Arautuan"
Estibalitz Alberdi Burgoa
Bizkaiko Bertsozale Elkarte. Ondarroa.
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Bertsolaritza jolasen bidez lantzeko tresnak"
Amaia Agirre Arrastoa
Gipuzkoako Bertsozale Elkarte. Tolosa.
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buzko saioa

UZTAILAK

8

- 09:15ean "Igarkizunetik iragarkizunera"
Juan Cruz Igerabide Sarasola
Mikel Laboa Katedra. UPV/EHU. Donostia.
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Kontaktaren erritmoan"
Pello Mari Añorga López
Mondragon Unibertsitatea. Ipuin kontalaria.
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Antzerkia haurrekin lantzeko jolas eta ariketak"
Ainara Gurrutxaga Juanikorena
Dejabu Panpin Laborategia. Errenteria-Oreeta.
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buzko saioa



UZTAILAK

9

- 09:15ean "Bertsoa... munduan kokatzeko"
Iñaki Murua Jauregi
Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. Villabona.
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Bertsoa... emakume izatearen kontzientzia pizteko"
Ainhoa Agirrezaldegi Rekondo
Euskal Herriko Bertsozale Elkarte. Villabona.
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Bertsoa... genero berdintasunaz jabetzeko"
Jone Miren Hernández García
*Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Donostia / San Sebastián.
UPV/EHU.*
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa



Ikastaroa J.2

BERTSOLARITZA ETA BESTE SORBIDEAK

Zuzendaritza: Beñat Gaztelumendi

Mintzola Fundazioa. Villabona.

Lekua: Miramar Jauregia. Donostia / San Sebastián.

Helburuak: Bertso eskolek, eta bertsolaritzak oro har, bertsoa sortzeko moduak eta tresnak transmititzen dituzte. Bertsoa sortzeko teknikak eta gakoak, ordea, aplikagarri izan daitezke bestelako sorkuntzetan edo komunikazio ekintzetan, bere horretan edo egokituta. Eta alderantziz; beste dizipline-tako sormen prozesuetako teknika eta gakoek balio dezakete bertsoak sortzeko prozesuan aplikatzeko, bere horretan edo egokituta. Ez dira gutxi bertso eskolan ibili diren edo bertsolari izateaz gainera idazle, musikari, marrazkigile, kazetari, telebista aurkezle eta irrati esatari direnak. Galdetu diegu zenbateraino lagundu dituen bere sorbidean bertsolaritzak. Edo alderantziz; balizko beste sorbide horrek zertan eta zenbateraino lagundu edo baldintzatu dituen bertsoen sorkuntzan.

J ziklo osorako matrikula eginez gero, matrikula berezia: maiatzaren 31ra arte: 120 €. Ekainaren 1etik aurrera: 140 €.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua eta Mintzola ahozko lantegia-ren lankidetzaz

Matrikula prezioa: maiatzaren 31ra arte: 40€. Ekainaren 1etik aurrera: 44€

Balio akademikoa: 10 ordu

Hizkuntza ofiziala: euskara



EGITARAUUA

UZTAILAK

10

- 09:00ean Dokumentazio banaketa
- 09:15ean "Bertsolaritza eta jendaurreko ikuskHitzuak"
Maialen Lujanbio Zugasti
Euskal Herriko Bertsotzale Elkarte. Hernani.
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Bertsolaritza eta komikigintza"
Unai Iturriaga Zugaza-Artaza
Bertsolaria eta marrazkilaria. Durango.
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Bertsolaritza eta hedabideetako kolaborazioak"
Andoni Egaña Macazaga
Mintzola Fundazioa. Villabona.
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa
- 19:00ean **PERFORMACEA. GAI edozertarako. Bertso saio esperimental.**
 Sorbide ezberdinetan gauzatutakoak gaitzat harturik bertso saio esperimental. Gaiak izan daitezke: poemak, aforismoak, narrazio laburrak, argazki, komiki, eskultura, zarata, soinu, antzerki esketx, mozorro...
Bertsolari 1: Maialen Lujanbio Zugasti
Euskal Herriko Bertsotzale Elkarte. Hernani.
Bertsolari 2: Unai Iturriaga Zugaza-Artaza
Bertsolaria eta marrazkilaria. Durango.
Gai-jartzailea: Jon Martin Etxebeste
Gipuzkoako Bertsotzale Elkarte. Tolosa.
Musikaria: Ixak Arruti Aranburu
Mintzola Fundazioa. Villabona.



Ikastaroa J.3

BERTSOLARITZA ETA GAURKO GIZARTEA

Zuzendaritza: Arkaitz Goikoetxea Arriola

Mintzola Fundazioa. Villabona.

Lekua: Miramar Jauregia. Donostia / San Sebastián.

Helburuak: Bertsozaletasuna errotuta dago euskal gizartean. Halaxe erakusten dute 1994 eta 2005eko bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoen. Badira nabarmentzeko alderdi gehiago ordea. Horiek plazaratzen eta 2015ean egingo den bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoen zer erakutsi behar duen azalduko dugu. Bertsolaritza sormen eta plazer bide ez ezik aldeko haize ere izan daiteke gizarteko hainbat alorretan, dela hizkuntzaren berreskuratze prozesuan, dela herrigintzan. Horren berri ematera gatoz ikerketa zein gogoeta aski interesgarrien bidez.

J ziklo osorako matrikula eginez gero, matrikula berezia: maiatzaren 31ra arte: 120 €. Ekainaren 1etik aurrera: 140 €.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua eta Mintzola ahozko lantegia-ren lankidetzaz

Matrikula prezioa: maiatzaren 31ra arte: 40€. Ekainaren 1etik aurrera: 44€



Balio akademikoa: 10 ordu

Hizkuntza ofiziala: euskara

EGITARAUA

UZTAILAK

11

- 09:00ean Dokumentazio banaketa
- 09:15ean "Bertsozaletasuna eta euskal gizartea"
Xabier Aierdi Urraza
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Leioa. UPV/EHU.
- 10:30ean Etenaldia
- 10:45ean "Bertsolaritza, komunitatea, herrigintza"
Jon Sarasua Maritxalar
Mondragon Unibertsitatea. Bertsolaria. Aretxabaleta.
- 12:00ean Etenaldia
- 12:15ean "Bertsolaritzaren transmisioaren eragina hizkuntzaren normalizazioan"
Miren Artetxe Sarasola
Mintzola Fundazioa. Villabona.
- 13:30ean Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa



Informazio orokorra

MATRIKULA - ESKARIA

Honekin batera eranstean den **matrikula-orrria** eta Uda Ikastaroen kontuan ikaslearen izenean egindako **diru-sartze ziurtagiria**, maiatzaren 5etik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean, ondoko helbidera bidaliz burutzen da:

UDA IKASTAROEN IDAZKARITZA:
1.042 Postakutxa
20.080 DONOSTIA

BBVA ES95 - 0182 - 5709 - 48 - 0010010034

MATRIKULA - PREZIOAK

Jarduera	(A)	(B)
- J.1:	80 €	92 €
- J.2:	40 €	44 €
- J.3:	40 €	44 €
- J ziklo osoa:	120 €	140 €

(A) Matrikula-prezinoa 2014ko maiatzaren 31 arte

(B) Matrikula-prezinoa 2014ko ekainaren 1etik aurrera

Izen-ematea behin-betirakoa izan dadin, berari dagokion erantzuna jaso beharko da. Plazarik ez dagoelako onartuko ez balitz, igorritako dirua itzuliko litzateke. Matrikula onartu zaien ikasleei ez zaie dirurik itzuliko, arrazoi justifikatu bat izan ezik. Ikasleak arrazoiak, ikastaroa hasi baino gutxienez 15 egun aurretik idazkaritzan jakinaraziko ditu.

LOJAMENDUA (DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN)

Ikastaroen antolaketak egoitza eskaintzen die hala eskatzen duten ikasleei. (Prezioak BEZ barne dira).

Erreserba bakoitzeko 5 € ordaindu beharko dira kudeaketagatik.

Unibertsitate egoitza Manuel Agud Queroi Berio Pasealekua 9, 20018 DONOSTIA www.resa.es	A	38 € pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela)
	B	71 € 2 pertsona - gau bakoitzeko (bi oheko gela)
* Gosaria ez dago barne. 2 gaueko gutxieneko egonaldia. Gela bakoitzean sukaldea dago. Asteko garbiketa egiten da.		

Colegio Mayor Olarain Paseo de Ondarreta nº 24, 20008 DONOSTIA www.olarain.com	A	61,05 € pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela)
	B	86,90 € 2 pertsona - gau bakoitzeko (bi oheko gela)
* Gosaria eta gelaren garbiketa barne.		

Villa Alaidi E.A.M. Ikasle egoitza Heriz Pasealekua 95 20009 DONOSTIA www.villa-alaidi.com	A	30 € pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua)
	B	35 € pertsona - gau bakoitzeko (ohe bakarreko gela - komuna partekatua)
* Gosaria eta gelaren garbiketa barne. 2 gaueko gutxieneko egonaldia. * Sarrera egunean gelaren erreserba 22:00 orduak baino lehen egingo da. (Handik aurrera ez dago harrera-lekurik).		

Ondarreta Gazte-ostatua Igeldo Pasealekua 25 20008 DONOSTIA www.donostialbergues.org	Ekaina	16,85 € pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua)
	Uztaila / Abuztua / Iraila	18,75 € pertsona - gau bakoitzeko (gela partekatua)
* Gela partekatuek, gosaria barne eta gela garbiketa izango dute.		

La Salle Ikasle egoitza Madalena Jauregiberri 2 20014 DONOSTIA www.lasalledonostia.com/egoitza	24 € pertsona - gau bakoitzeko
* Ohe bakarreko gela. Gosaria eta gela garbiketa barne. Bainu partekatua.	

Hoteletan:

Viajes Mundo Tres Artzai Onaren Enparantza, 7 - 20005 DONOSTIA	Tel. 943 43 05 69 Fax 943 43 10 69 events@viajesmundotres.es
--	--

HIZKUNTZAK

Ikastaroak **Gaztelaniaz, Euskaraz, Ingelese**z edo **Frantsesez** izango dira. Hizlaria, ikastaroko hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza batetan mintzatzen denean, aldibereko itzulpena eskainiko da.

ZIURTAGIRIAK

Ikastaroak bukatzean, Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitateak **partehartze agiria** luzatuko die ekitaldi gehienetara etorri diren ikasleei.

BEKAK

Erakunde antolatzaileek matrikula edo/eta lojamendu bekak eskaintzen dituzte:

- * **Matrikula-beka** izateak, ikastaroaren egiazko balioaren %50a bakarrik ordaintzeko eskubidea eskaintzen du. (Beka izateak ez du plaza bermatzen)
- * **Lojamendu-bekek**, hautatutako egoitza eta aukeraren araberako lojamendu-eskubidea ematen dute eta gau guztien egiazko balioaren %50a ordaindu beharko da, Ikastaroaren hasieraren bezperatik amaitzen den eguneko bezperaraino, bekan adierazten den egoitzan eta bekadun zaren Ikastaro bakoitzean.
- * Beka-eskariak **inprimaki ofizialean** egingo dira **2014ko apirilaren 30a baino lehenago**, Ikastaroetako Idazkaritzara igorriz.

MATRIKULAK

- * 2014ko maiatzaren 5etik aurrera eta plaza hutsak gelditzen diren bitartean.
- * Beka eskatu baduzu, ez duzu matrikula egin behar baieztapena jaso arte.
- * Plazen kopurua mugatua denez, hala ikastaroetan nola egoitzean, **izen-ematea behin-betirakoa izan dadin**, berari dagokion erantzuna jaso beharko da. Ezinezko gertatuko balitz, Uda Ikastaroak bukatutakoan, dagokizun diru kopurua itzuliko litzaizuke banku transferentzi baten bidez.
- * **Matrikula exentzia:** UPV/EHUK etengabeko prestakuntza ikasketetarako onartuta dituen matrikula-exentzio berak aplikatuko dira. (Berezko ikasketei buruzko arautegi bateratua, 2010/12/22ko Gobernu Kontseilua), kudeaketa-gastuak izan ezik.
- * **Matrikula baliogabetzea:** Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidali beharko da matrikula baliogabetzeko inprimakia (udaikastaroak@ehu.es) ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago gutxienez. Matrikula ordaintzeko egindako diru-sarrera itzuliko zaizu kudeaketa-gastuetarako 10 € izan ezik.
- * **Egoitza baliogabetzea:** Uda Ikastaroen Idazkaritzara bidali beharko da matrikula baliogabetzeko inprimakia (udaikastaroak@ehu.es) ikastaroa hasi baino 8 egun lehenago gutxienez. Egoitza erreserba hori ordaintzeko egindako diru-sarrera itzuliko zaizu kudeaketa-gastuetarako 2,5 € izan ezik.

BESTELAKO INFORMAZIOA

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo ondoko helbide honetara:

Uda Ikastaroen Idazkaritza
Miramar Jauregia
Miraconcha Pasealekua, 48
20.007 DONOSTIA

Tel.: (+34) 943 21 95 11
Faxa: (+34) 943 21 95 98
udaikastaroak@ehu.es
www.ehu.es/cursosverano

Argibideak eta izen ematea - Ikastaroen Idazkaritzan
Miramar Jauregia 20007 DONOSTIA
1042 Posta Kutxatila - 20080 DONOSTIA
Tel. 943 21 95 11 - Fax 943 21 95 98
udaikastaroak@ehu.es
www.ehu.es/cursosverano

Beka eskaria: 2014ko apirilaren 30a baino lehen.

Matrikula eskaria: Ohikoa: 2014ko maiatzaren 5etik 31ra.
2014ko ekainaren 1etik aurrera %20 gehiago.

Información e Inscripciones - Secretaría de los Cursos
Palacio Miramar 20007 SAN SEBASTIÁN
Apartado 1042 - 20080 SAN SEBASTIÁN
Tel. 943 21 95 11 - Fax 943 21 95 98
cverano@ehu.es
www.ehu.es/cursosverano

Solicitud de beca: Antes del 30 de abril de 2014.

Solicitud de matrícula: Entre el 5 y el 31 de mayo de 2014.
A partir del 1 de junio de 2014, 20% de incremento.

ANTOLATZAILE ETA BABESLEAK / ORGANIZADORES Y PATROCINADORES

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA / UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA
DONOSTIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

LAGUNTZAILEA / COLABORADOR

Fundación **BBVA**

